

**MENINGITIS LINFOZITIKOA**  
**MENINGITIS LINFOCITARIA**

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **MENINGITIS LINFOZITIKOA**.

**ZER DA?**

Meningeen infekzioa da, normalean birusek sortua. Meningeak mintz batzuk dira, burmuina eta bizkar-muina (lepotik bizkarraren beheko alderaino doana), estali eta babesten dituztenak. Mintz hauek handituta daude. Horregatik, sintomak, sukarrak gainera, buruko eta bizkarreko mina eta gorakoak dira.

Likido zefalorrakideoaren analisiaren bidez diagnostikatzen da (burmuina eta hezur-muina bainatzen dituen likidoa). Likido hau bizkarraren beheko aldean egiten den ziztada baten bidez lortzen da (gerri-ziztada).

**ZEIN DA TRATAMENDUA?**

Birusek sortzen dutenez, berez sendatzen da; ez da antibiotikorik behar eta gehienetan ez da umea ospitaleratu behar izaten. Umea erosoago egon dadin, sintomak baino ez dira tratatu behar. Hala ere, buruko mina oso bizia edo gorakoak oso jarraituak izanez gero, beharrezkoa izan daiteke zain-barneko tratamendua jasotzea, ospitalean.

Etxean, sukarra eta buruko mina analgesiko antitermikoaren bidez tratatu behar dituzu (ibuprofeno edo paracetamola, adibidez), eta likido ugari eman behar diozu.

**ZERI JARRI BEHAR DIOZU ARRETA?**

- Buruko mina oso bizia bada edo gorakoak oso iraunkorrak badira eta ezin badu ezer hartu, eraman ezazu ospitalera berriro, zeren eta beharrezkoa izan baitaiteke serum eta analgesiko indartsuagoen bidez tratatzea.
- Konturatzeko bazara umea okerrera egin duela edo logura handiegia daukala edo nahastuta dagoela, eraman ezazu berriro medikuak azter dezan.
- Gerri-ziztadak *“ziztada-ondorengo sindromea”* sorrarazten du, batzuetan, ziztada egin eta 24-48 ordutara agertzen dena. Hori dela-eta, berriro ager daitezke buruko mina, gorakoak, mina gerrialdean eta, zutik jartzean, hanketan indarrik ez izatearen sententzia. Kasu hauetan, ume gehienek hobera egiten dute egun pare batean, atsedinari esker, inflamazioa gutxitzeko medikamentuak hartuz (aspirina, ibuprofenoa...) eta likido ugari edanez. Sintomak oso biziak badira eta neurri horiekin ez badute hobera egiten, beharrezkoa izan daiteke ordu edo egun batzuetan ospitalean ingresatzea, serumaz eta analgesiko indartsuez tratatzeko.

Su hijo ha sido diagnosticado de **MENINGITIS LINFOCITARIA** por los síntomas que presenta en el momento actual

**¿QUE ES?**

Es una infección de las meninges, generalmente, causada por virus. Las meninges son unas membranas que cubren y protegen el cerebro y la médula espinal (que va desde el cuello hasta la parte baja de la espalda) y están inflamadas. Es por eso que los síntomas son, además de la fiebre, el dolor de cabeza y espalda y vómitos.

Se diagnostica por análisis del líquido céfalo-raquídeo (líquido que baña el cerebro y médula espinal), que se obtiene mediante una punción en la zona inferior de la espalda (punción lumbar).

**¿COMO SE TRATA?**

Al estar causada por virus se cura espontáneamente, sin precisar antibióticos, no siendo preciso, en la mayoría de los casos, hospitalizar al niño. Sólo es necesario tratar los síntomas para que el niño esté más cómodo. Únicamente si el dolor de cabeza es muy intenso o los vómitos muy continuos, puede ser necesario un tratamiento intravenoso en el hospital.

En su domicilio usted debe tratar la fiebre y el dolor de cabeza con analgésicos-antitérmicos (como el ibuprofeno o el paracetamol) y ofrecerle líquidos abundantes.

**¿QUE VIGILAR?**

- Si el dolor de cabeza es muy intenso o los vómitos son muy continuos y no puede tomar nada llévelo de nuevo al hospital, pues puede precisar tratamiento con suero y analgésicos más potentes.
- Si detecta usted un empeoramiento del niño o que está demasiado adormilado o confuso acuda a que lo reconozca un médico de nuevo.
- La punción lumbar, en ocasiones, produce un *“Síndrome post-punción”*, que suele aparecer a las 24-48 horas de realizada aquella. Puede causar reaparición del dolor de cabeza, vómitos, dolor en la zona lumbar y sensación de falta de fuerza en las piernas al ponerse de pie. La mayoría de los niños que lo presentan, mejoran en un par de días con reposo, medicamentos para disminuir la inflamación (aspirina, ibuprofeno...) y toma de abundantes líquidos. Si los síntomas son muy intensos, y no mejoran con las medidas anteriores, puede precisar ingreso hospitalario durante unas horas o días, para tratamiento con suero y analgésicos más potentes.